

## BULARRETIK MINTZORA KANPAINAREN EBALUAZIO KUALITATIBOA EGITEN HASI GARA



2008-2009. ikasturtean abiatu zuen Galtzagorri Elkarrean Bularretik Mintzora egitasmoa EAEko 5 herritan. Eusko Jaurlaritzaren babesarekin sortu eta burutzen den egitasmo honen baitan, gaur egun, bost urte geroago, 21 herri daude: 56 ikastetxe, 542 irakasle, 8.819 ikasle. Beraz, bost urtetan, urtero %40 hazi da egitasmo honen baitan dagoen eragile kopurua. Gero eta haur gehiagorengan ari gara beraz irakurtzeko zaletasuna sustatzen. 2015ean, komunitate zientifikoaren interesa piztu zuen egitasmoak eta

hala, BCBL institutuarekin ikerketa bat abiatu zen. 2016an, egitasmoaren ebaluazio kualitatiboari ekin diogu Bularretik Mintzoraren lan taldean, lehen aldiz. Ebaluazio kualitatiboaren helburu orokorra Bularretik Mintzora egitasmoaren jardura sistematikoek (eskolan, familian eta liburutegian) haurren garapen emozional eta intelektualean zer nolako eragina izan duten jakitea da. Ebaluazio modu honek luze joko badu ere, baditugu lehenengo emaitzak.

**BULARRETIK MINTZORA** egitasmoa kanpaina sistematizatu bat izateko bokazioz jaio zen. Euskal Herriko haur txikien guraso eta hezitzaileei zuzenduta dago eta bere helburu nagusia da 0-8 urte bitarteko haurrengan irakurketa ohiturak sustatzea, haien gurasoak eta hezitzaileak bitartekari direlarik.

Irakurketa garatzen den inguru naturalean gauzatzen da kanpaina: osasun zentroetan, bibliotekan, etxean, haurreskola eta eskoletan, hain zuzen ere. Egoitza hauetan Galtzagorri Elkarrean ekimen ordenatuen bitartez jorratzen ditu giro irakurle bat sortzeko aukerak.

Urte guzti hauetan gauzatutako ekimen ordenatu horiek ebaluatzen aritu gara, modu kuantitatiboan. Eta hala jakin dugu adibidez, BMn egin den herri askotan, gurasoek orain haurrekin ipuina irakurtzen duten bitartean dituzten bizipenak hobetu egin direla, gurasoen liburutegira joateko ohitura sortu edo areagotu dela, hainbat gurasok euskal haur kantak berreskuratzea dituela, gurasoek ipuina kontatzerakoan umeen arreta mantentzeko gaitasuna hobetu dela...

Baina, Bularretik Mintzoran irakurketaren ikusmolde zabal bat dugu abiapuntu: Ez dago gure asmoetan, inolaz ere, haurra lehenbailehen irakurtzen hastea; gure proposamenak literatur edukiak dastatuz haiekin gozamina sortzera bideratzen dira. Zera lortu nahi dugu: haur literaturak haurrengan garapenean duen eragina aztertu ondoren, baliabide egokiak eta ordenatuak eskaintzea literatura haurrengan bidelagun bihurtzeko, adinez adin.

Badakigu ipuingintzak haurren garapen emozional eta afektiboan eragin zuzena duela. Barne mundu horiek arakatzea da zabaldu berri dugun ebaluazio lerraren helburua. 2016an hasi da ebaluazio kualitatiboa garatzen Bularretik Mintzora egitasmoaren ekipoaren ardurapean.

### **Sormen eta arreta bisualean, nahiko ongi; entzutezko arreta mantentzeko, larri**

Haur literaturak sortzen duen eragin baikorretako bat da *introspekzioa*, haurrak “bere baitan sartzeko duen ahalmena” areagotzea. Azken finean, haur literaturak haurren sentikortasuna, identifikazio emozionala eta enpatia garatzen dituela frogatu nahi dugu.

Haurren introspekziarako ahalmen hori ebaluatzeko, nahiz eta modu ezberdinak dauden, ebaluazio honetan bi aldagai kontuan izan eta ebaluatu dira:

-Haurrak duen *irudikatzeko ahalmena* (irudi mentalak sortzeko ahalmena), irudi horiek, besteak beste, norberaren bizipen afektiboetatik sortzen direlako.

-Haurren *arreta mantentzeko ahalmena*: haurrak “bere baitan”, “adi” egoteko duen ahalmena, denboraz eta kalitatez.

2016ko maiatzean eta ekainean, Bularretik Mintzorako ebaluazio kualitatiboaren lehen epearekin hasi ginen. Horretarako, 5 urteko 31 ume ebaluatu dira. Kontrol lagina osatu dute hauek. Alegia, haur hauek ez dute BMren baitako ekimenik gauzatu. Haur hauekako bakoitzari frogak egin zaizkio eta hauekin ateratako ondorioak 2016-2017. ikasturtearen amaieran talde esperimentalari egingo zaizkion frogen emaitzekin alderatuko dira.

Aipatutako haur taldeari egindako frogen emaitzek zera adierazi dute: sormena eta irudikatzeko ahalmenari dagokionez, neurrizko mailan edo maila moderatu batean kokatzen dela haur talde hau. Arretari dagokionez, ordea, arreta bisualaren eta entzunezkoaren artean aldea handia da; orokorrean, kontrol lagina osatzen duten haurren arreta bisuala, entzunezkoa baino hobea da: arreta bisuala mantentzeko denborari dagokionez, %34an kokatzen da haur talde honen batezbesteko ahalmena, 5/6 urteko haurrei dagokien baremoarekin alderatuz. Arreta bisualaren kalitatea, %44an. Ordea, entzutezko arreta eta oroimenari dagokionez, haur talde honen batez besteko ahalmena %25ekoa da, 6 urteko haurren baremoekin alderatuta.

Ikasturte honen bukaeran Bularretik Mintzoraren baitan dagoen eta bertako ekimena Euskal Haur Literatura Eskola Curriculumean Egitaraua burutu dituen haur taldearen emaitzak nolakoak diren. Hala jakingo dugu, Bularretik Mintzoraren barruko ekintza sistematikoak egiteak haurren sormen gaitasunean eta arreta mantentzeko gaitasunean nolako eragina duen.

### **Komunitate zientifikoaren interesa piztu du BMk**

Bularretik Mintzora egitasmoaren ezaugarri garrantzitsuenetako bat da eskoletan eta etxeetan Euskal Haur Literaturaren alde egin duen apustua. Haur literatura modu sistematiko batean erabiltzeak helduekiko lotura afektiboak areagotuko ditu, aldi berean, haurrari bere emozioei aurrez aurre begiratu eta ulertzen laguntzen dio. Baina, Haur Literatura modu sistematizatu

batean erabiltzean, patroi erritmiko batzuk ere eskaintzen dizkiegu haurrei: hitz joko eta poesiaren bitartez; tradiziozko kantuak eta ipuin kontaketak erabiliz, murgildu egiten ditugu gure haurrak soinu sistema ordenatu batean, non hizkuntzaren soinuak, doinua eta kadentzia hizkuntza sortzeko paradigmatikoki bilakatzen diren.

Bularretik Mintzora egitasmoaren baitan, ikastetxeetan, faktore guzti hauek azpimarratzen dituen egitarau ordenatu bat eskaintzen dugu. BCBL (*Basque Center on Cognition, Brain and Language*) institutuan egitaraua ezagutu zutenean ikerketa lan bat bideratzea proposatu zuten. Izan ere komunitate zientifikoak probatuztat ematen du erritmoaren pertzepzioan eta irakurtzeko gaitasunaren artean erlazio zuzena dagoela.




Hala, BCBLko ikerlari talde bat lau urteetan Bularretik Mintzoraren baitan ikastetxeetan eskaintzen den egitaraua erabiltzen duen haur talde baten jarraipena egiten dabil; eta aldi berean, egitasmotik kanpo dauden beste haur talde batekin osatuko du corpusa, noizbait bata eta bestea alderatzeko.


Paula Ríos doktore-gaiak gauzatuko du 2015ean abiatu zen ikerketa eta BCBLko zientzialariek zuzentzen dute lan osoa: Marie Lalier, Nicola Molinaro eta Oihana Vadillo. Emaizak 2017a baino

lehenago ikusiko ez baditugu ere, 2015eko uda bitartean egin zen ebaluazioaren berri eman dute BCBLkoek. Eta diote, orain arte lortutako datuei esker, zientifikoki baliagarritasun handiko informazioa jaso dutela. Horren arabera, oso lotura estua dago umeen erritmoaren sinkronizazio gaitasunaren —danbor elektronikoaz baliatuta aztertutakoa— eta irakurmena garatzeko oinarrizko ezagueren artean. Zehatzago esanda: **alfabetoko letrak ondoen dakizkitenak (1. grafikoa) eta existitzen ez diren hitzak, hots, pseudohitzak, errepikatzeko (2. grafikoa) gaitasun handiena erakusten dutenak erritmoa sinkronizatzeko garaian ere onenak dira.**

1. grafikoa



2. grafikoa



Harreman honek gure hipotesia berresten du, **erritmoa atzemateko eta errepikatzeko gaitasunak irakurmenarekin erabateko erlazioa duela dioena.** Honek Bularretik Mintzorak

duen xede nagusia lortzetik gertuago gaudela adierazten du; umeen gaitasun erritmikoak leitzen ikasten hasi aurretik aztertuta, hizkuntza eta irakurtzeko arazoak aurreikustea posible litzatekeela egiaztatuz. Era horretan, hezkuntzaren eta zientziaren ikuspuntutik, erritmoaren sinkronizazio ahalmena adin goiztiarrean sustatzeko balio duen detekzio eta esku-hartze materiala sortzea posible litzateke, etorkizunean irakurmen-arazoak saihesteko helburuz.

Gainera, elektroentzefalografia (EEG) bidez lortutako datuen analisisekin, garunean dauden irakurketarako mekanismoak ondo ezagutu ahal izango ditugu, eta hori, aldi berean, laguntza handikoa izango da hizkuntza arazoak antzemateko orduan, umeen jokabideak berak adierazi aurretik.